


## Arte- eta kultur-adierazpenak

### Arte-adierazpenak

Monasterio-ordena erreformatzaileen hedapenari esker, XI. mende amaieraz geroztik Europa kristauan oso ohikoa zen arte-estiloa zabaldu zen: erromanikoa. Euskal Herrian Clunyko Ordenak bultzatu zuen estilo horren hedapen bizkorra, eta Donejakue Bidean sortutako adar berriek ere hedatzen lagundu zioten, bidean zehar Europako eredu estetiko eta kulturalak zabaldu baitziren.

**Prerromanikoa:** VII. mendetik X. mendera bitartean landutako arte- eta arkitektura-estiloa da. Estilo horrek teknika eta motibo paleokristauak darabiltza dekorazioan, jatorri germaniarreko (bisigodoa) arte-tradizioekin batera. Horren eredu ditugu absideetako leihateak (monolitikoak, ferra-arku zentrokideekin eginak), adibidez. Euskal Herrian oso urriak ditugu estilo horretako eraikinak: Mutrikuko San Andres eliza (Astigarribia auzoan), Abrisketako San Pedro ermita (Arrigorriagan) eta Astreako San Julian ermita (Zalduondon).



**Prerromanikoa:** VII. mendetik X. mendera bitartean landutako arte- eta arkitektura-estiloa.


**Erromanikoa:** XI. mendetik XII. mendera bitartean landutako arte- eta arkitektura-estiloa.

**Protogotikoa:** XIII. mende hasieran hasi ziren estilo hori lantzen, eta erromanikotik gotikorako zubia izan zen.

**Erdi-puntuko arku:** Erromanikoko ataurre, leiho eta nabeetan gehien erabiltzen zuten arku erdi-puntukoa zen.

**Dekorazio eskultorikoa:** Ate- eta leiho-zangoak, ate- eta leiho-buruak, tinpanoak... eskulturez osatutako dekorazio oparoa oso hedatuta zegoen, eta dekorazio horretan kontakizun sakratuak irudikatzen ziren kristautasunaren oinarriak zabaltzeko. Irudiok zeharo didaktiko eta moralizatzaileak ziren, Erdi Aroko gizartean nagusi zen erlijio-jaiarari jarraiki.

**Erromanikoa:** XI. mendetik XII. mendera bitartean landutako arte- eta arkitektura-estiloa da. Honakoak ditugu estilo horren ezaugarri nagusiak: erdi-puntuko arkuak, kanoi-ganga erdizirkularrak, bat eta hiru nabe bitarteko basilika-oinplanoak, bat edo hiru abside erdizirkularreko goiburukoak, eskulturen bidezko dekorazioa kapiteletan, arkuetan eta aturreetan eta margoen bidezko dekorazioa horma eta gangetan.



**Kanoi-ganga:** Erdi-puntuko arkuak elkarren ondoan jarriz kanoi erdizirkularreko gangak osatzen zituzten.

**Murruek:** Eliza barruko horma edo murruen arrastorik ia ez da gelditzen, baina horma horietan eskultoretako erliebeetako mezu berberak margotzen zituzten.

Euskal Herrian erromanikoa oso azkar zabaldu zen, ondorengo arrazoiengatik:

- Clynaterren ordenaren eskumendeko monasterioak sortu zirelako eta ordena horrek erromanikoa zabaltzen lagundu zuelako.
- XI. mendean zehar klunitar monjeek gregoriar erreforma hedatu zutelako.
- Santiago Konpostelako erromes-bidean adar nagusi bat (Frantses bidea) eta beste adar txiki batzuk sortu zirelako Euskal Herrian. Adar horien bidez hedatu ziren Europako eredu estetiko eta kulturalak.

Erromanikoa Nafarroan hedatu zen gehienbat, gutxixeago Araban eta oso gutxi Bizkaian eta Gipuzkoan. Zergatik? Donejakue Bidearen adar nagusiak Nafarroa zeharkatzen zuelako eta klunitar abadiarik garrantzitsuenak herrialde horretan zeudelako. Gainera, XI. mendean, erromanikoak goia jo zuen garaian, alegia, Nafarroa Iberiar penintsulako erresuma kristau nagusia bihurtu zen, Antso III.a *Azkarraren* politikari esker.

Lehen erromanikoan, X. mende amaieratik XI. mendeko hirugarren laurdenera arte, Leireko San Salvador eta Aralarko Done Mikel in Excelsis nabarmentzen dira.

Erromanikoaren loraldian, XI. mendeko hirugarren laurdenetik XII. mende erdialdera arte, Uxueko Andre Maria, Iratxeko monasterioa eta Iruñeko katedrala ditugu eraikinik garrantzitsuenak, guztiak ere Nafarroan. Iruñeko katedrala Pedro de Roda gotzainaren agintaldian hasi ziren eraikitzen. Gotzaina Clunyn ibilia zen 1100. urtean, eta erreformatzaile gogorra zen. Santiagoko katedraletik zetorren Esteban maisuak lagundu zion katedralaren eraikitze-lanetan.

XII. mende erdialdetik XIII. mende hasiera arte erromaniko berankorra landu zuten. Hauek ditugu estilo horren eredurik garrantzitsuenak: Zangozako Santa Maria, Eunateko Santa Maria, Lizarrako Ruako San Pedro, Armentziako basilika, Estibalizko Ama edo Galdakaoko Andre Mari.

XIII. mende hasieran protogotikoa hasi zen, hau da, erromanikotik gotikorako zubia egiten zuen estiloa. Estilo horren ezaugarri nagusiak hauek ziren: arku zorrotzak, ogiba-arkuak, zutabe bikoitzeko harroinak, oinplano poligonaleko absideak... Estilo horretakoak ditugu Tuestako Andre Maria eliza (Araba) eta Orreagako kolegiata, besteak beste.